# XXVIII.
# NAZIOARTEKO ARGAZKI MOSTRA

## XXVIII
## MUESTRA INTERNACIONAL DE FOTOGRAFÍA

# XXVIII. NAZIOARTEKO ARGAZKI MOSTRA
## XXVIII MUESTRA INTERNACIONAL DE FOTOGRAFÍA

Zarautz
2020

Aurten gure bizimoduek erabateko aldaketa jasan dute, eta horrek bere eragina izan du Argazkizale Elkartearen jardueran ere. Betiko izango zela uste genuen hori etengabeko “agian” batean bihurtu da; lehen ziurtasun zirenak, orain posibilitate besterik ez dira. Baina, hala eta guztiz ere, ahalegin berezia egin dugu lanean jarraitzeko eta oztopoak gainditzeko, eta artearen bidez jarduerari berrekiteko. Argazkilariaren begiradak betikotutako lekuen, momentuen, bizidunen, oroitzapenen eta emozioen edertasuna gelditzen zaigu. Horixe biltzen du, hain zuzen, XXVIII. Mostra honek, jendearen atseginerako.

Gozatu!

*Zarauzko Argazkizale Elkartea*

Este año nuestra vida se vio profundamente afectada y la actividad que llevamos a cabo en la Sociedad Fotográfica no fue ajena a ello. Lo que creíamos que iba a ser para siempre se ha convertido en un continuo quizás; las certezas han pasado a ser posibilidades. Pero, aun así, hemos hecho un esfuerzo en seguir trabajando y salvando los obstáculos, retomar la actividad a través del arte. Nos queda la belleza de la mirada del fotógrafo inmortalizando lugares, momentos, seres vivos; recuerdos y emociones que recoge esta XXVIII Mostra para deleite del público.

¡Que la disfrutéis!

*Sociedad Fotográfica de Zarautz*

## Jota Barros

Nire izena Jota Barros da, eta A Gudiña-n jaio nintzen, Galizia barruko herri batean.

Umetan iritsi zitzaidan argazkilaritza, nire aitaren bitartez. Igandetan, aitarekin eseri, eta gehigarria irensten nuen, hark egunkaria irakurtzen zuen bitartean. Bere kamerarekin hasi nintzen argazkiak egiten, baina, gero, karrerako urteetan —Fisika ikasi nuen— eta nire lehen lanetan, utzi egin nuen.

2011n nire bloga abiatu nuen (jotabarros.com <http://jotabarros.com/>), berriz ere argazkilaritzari ekiteko eta jarraipena emateko asmoarekin. Horrela hasi nintzen 2013an nire lehen ikastaroak ematen.

Itxura guztien kontra, 2014tik aurrera irakaskuntza profesionalean aritu naiz, tailerren bitartez (batez ere, Kaleko Argazkilaritzakoak). Tailer horiek hainbat lekutara eraman naute (besteak beste, Tanger, Londres, Erroma, Berlin), eta gainera aukera eman didate gure mugen barruko hiri ugari ere ezagutzeko.

Irakaskuntza, nire ustez, ezagutzen transmisio hutsa gainditzen duen prozesu bat da. Eta, argazkilaritza, berriz, irudiak harrapatzea baino zerbait gehiago, biek aukera eta aitzakia ematen digutelako besteekin eta inguratzen gaituen munduarekin konektatzeko.

Me llamo Jota Barros y nací en A Gudiña, un pueblo del interior de Galicia.

La fotografía llegó a mi de niño a través de mi padre, con quien me sentaba a devorar el suplemento dominical mientras él leía el periódico. Comencé a hacer fotos con su cámara, pero lo dejé durante los años de la carrera —estudié Físicas— y mis primeros trabajos.

En 2011 arranqué mi blog (jotabarros.com <http://jotabarros.com/>) como una manera de retomarla y darle continuidad, lo que me llevó a dar mis primeros cursos en 2013.

Contra todo pronóstico, desde 2014 me dedico profesionalmente a la enseñanza (sobre todo de Fotografía de Calle) a través de talleres que me han llevado a destinos como Tánger, Londres, Roma o Berlín, entre otros, además de darme la oportunidad de conocer muchas ciudades dentro de nuestras fronteras.

Concibo la enseñanza como un proceso que va más allá de transmitir conocimientos, y la fotografía como algo más que simplemente capturar imágenes; las dos son una oportunidad y un pretexto para conectar con otros y con el mundo que nos rodea.



## Mª Jose Cueli

Niretzat, argazkilaritza abentura bat da. Maila errealean beti aurkitzen dut fotograatu dudanaren aurpegi ederra eta sentikorra. Maila errealetik harago, irudimenezko alderdia askatzea eta mundu sotilak, ametsezko unibertsoak sortzea maite dut. Aukerak izugarriak dira, nik gainazala harramazkatu besterik ez dut egin, zulotxo bat aurkitu eta bertatik sartu eta gozatzeko.

Para mí, la fotografía supone toda una aventura. En lo real, siempre encuentro la cara hermosa y emotiva de lo que fotografío. Más allá de lo real, me gusta desatar esa faceta imaginativa e inventar mundos sutiles, universos imaginarios. Las posibilidades son inmensas, yo simplemente araño la supercie en busca de un agujerito por donde colarme y disfrutar.



## Antonio Manta

"Emakumea...

Nire proiektuak omenaldi xume bat egiten die emakumeei.

Emakumeak garai guztietan eta beti jasan izan du matxismoa, nahiz eta azkenaldian emantzipazio handiagoa aitortu zaion ia mundu osoan.

Argazkilaria naizenetik, beti behatu izan dut haien lana, haien indarra eta jarduera guztietan zabaltzen duten maitasuna.

Proiektu honekin, balioa eman nahi nioke haien "edertasunari", baina ez ohituta gauden estetikari, baizik eta haien keinuen, haien begiraden edertasunari. Haurrari bularra ematean transmititzen duten maitasunari.

Urteak pasata ere pasatzen ez den edertasun horri.

Orduak eta orduak pasatu ditut mundu osoan haiek beren eguneroko bizitzan behatzen, eta beti emozioz betetzen naute."



"Mujer...

Mi proyecto es un modesto homenaje a las mujeres.

La mujer siempre ha sufrido el machismo en todas las épocas, aunque últimamente en gran parte del mundo le viene reconocida una mayor emancipación.

Desde que soy fotógrafo, siempre he observado su trabajo, su fuerza y el amor que desprenden en todas sus actividades.

Con este proyecto, espero darle valor a su "belleza", no solo aquella estética a la que estamos acostumbrados, sino a la belleza en sus gestos, en sus miradas. El amor que transmiten alimentando a un niño desde su pecho.

Aquella belleza que no pasa con el pasar de los años.

He pasado muchísimas horas observándolas en su vida cotidiana en todo el mundo, y siempre me llenan de emoción."

## Lander Rezola Iztueta

Euskal Herrian jaio zen, 1976ko ekainaren 11n, Itsasondoko herri txikian.

Argazkilari dokumentalista soilik ez den arren, bere argazkiek hogeita hamarreko hamarkada urrun hartan sortutako argazkilaritza gogorarazten dute. Kuriositate handia sentitzen du gauza arruntekin, eguneroko gertakariekin eta gure ibilian lagatzen dugun aztarnarekin. Bere irudien bitartez agerian uzten du errepresentazio anonimoak nolako garrantzia izan duen beti konplexutasun soziala ulertzeko.

Hala ere, azken lan honetan egileak kanpora begiratzeari utzi dio, eta proiektu intimo eta pertsonalago batean sartu da. Egilearen eta haren beldur eta zailtasunen artean sortzen den elkarrizketaren emaitza da “Emak Bakia”.

*"Gizakia da beti gartzela bat eraikitzen duena. Eta ez da gizaki bat ezagutzen, zer gartzela eraiki duen jakin arte."*

*(Juarroz, 1982, 1-4)*

Nació en el País Vasco el 11 de junio de 1976, en la pequeña localidad de Itsasondo.

Aunque no sea un fotógrafo puramente documentalista, sus imágenes recuerdan a esa fotografía social que surgió allá por los años treinta. Siente gran curiosidad por las cosas sencillas, el devenir cotidiano y la huella que dejamos a nuestro paso. A través de sus imágenes trata de evidenciar la importancia que siempre ha tenido la representación anónima para comprender la complejidad social.

Sin embargo, en este último trabajo, el autor deja de mirar al exterior para adentrarse en un proyecto de carácter más íntimo y personal. “Emak Bakia” es el resultado del diálogo que surge entre el autor y sus propios miedos y dicultades.

*“El hombre es siempre el constructor de una cárcel. Y no se conoce a un hombre hasta saber qué cárcel ha construido.”*

*(Juarroz, 1982, 1-4)*





Antolatzailea: Zarauzko Argazkizale Elkartea
Argitaratzailea: Zarauzko Udala

SANZ ENEA

2020ko azaroak 5 - 2021eko urtarrilak 17
5 de Noviembre de 2020 - 17 de Enero de 2021

ORDUTEGIA - HORARIO
Egunero 18:00 - 20:00 Todos los días

((Abenduak 24,25,31 eta urtarrilak 1 itxita)
(Cerrado los días 24, 25, 31 de Diciembre y 1 de Enero)

ZARAUZKO UDALA
KULTURA DEPARTAMENTUA